



Argitaratze data: 2018/05/11

## ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA 2018 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

### HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA ZIURTATZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

**Entregatzeko epea: 2018ko maiatzaren 16tik 22ra arte, biak barne.**

#### **Nortzuek entregatu behar dute:**

Onartuak eta baztertuak dauden izangaiek, baldin eta gora jotzeko errekurtoa jarri badute eta ebatzi gabe badago, beharrezko diren kasuetan, deialdiaren 2.6.2 oinarrian ezarritakoaren arabera.

#### **Aurkeztu behar den dokumentazioa, kasuaren arabera:**

- irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizunaren baliokideak edo homologatuak diren hizkuntza-titulazioa edo ziurtagiria, baldin eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan ez badaude, edo Hezkuntza Sailaren Langileen Erregistroan ez badaude.

- dagokion unibertsitateak emandako ziurtagiria, irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna ziurtatzeko salbuetsita dagoela adierazten duena, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren irakasle-lanpostuen 2. eta 5. artikuluetan zehaztuta.

Ez da beharrezkoa izango titulazioa edo ziurtagiria aurkeztea, aldeztatik aurkeztu bada. Kasu horretan adierazi behar da zein une, prozedura eta erakundetan aurkeztu zen.

#### **Ez da beharrezkoa aurkeztea hurrengo tituluak eta ziurtagiriak, baldin eta aipatutako erregistroetan badaude:**

- a) Irakasle-lanpostuei ezarri zaien 2. hizkuntza-eskakizuna.
- b) Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste erkidegoren bateko hizkuntza-eskola ofizialetako euskararen Gaitasun Ziurtagiria edo 5. mailaren ziurtagiria (ikasketa-plan zaharra, urtarrilaren 24ko 47/1992 Errege Dekretuaren arabera).
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste erkidegoren bateko hizkuntza-eskola ofizialetako gaitasun-mailaren (C1) ziurtagiria (otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuaren arabera).
- e) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) emandako 3. hizkuntza-eskakizuna.
- f) HABEko 3. mailako eta C1 mailako ziurtagiria (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea).
- g) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko 3. hizkuntza-eskakizuna.
- h) Ertzaintzako 2. hizkuntza-eskakizuna.
- i) Euskaltzaindiko D ziurtagiria.

**Entregatzeko modua:**

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari idatzi bat aurkeztu beharko zaio, Donostia kalea 1 (Lakua), Vitoria-Gasteiz (posta-kodea: 01010).

**Entregatzeko tokia:**

a) Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan:

- Araba: San Prudencio, 18 - Vitoria-Gasteiz
- Bizkaia: Gran Vía, 85, Bilbao (1º solairua)
- Gipuzkoa: Andia, 13 (Hezkuntza) - Donostia

b) Zuzenean dituen bulegoetan:

- Araba: Ramiro de Maeztu kalea, 10 behea - Vitoria-Gasteiz
- Bizkaia: Kale Nagusia 85 – Bilbao
- Gipuzkoa: Andia kalea 13 – Donostia